

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Nahasterrekan.
Mahaster River.
Autoekoizpena.
Iraupena: 48'14".
10 euro.

Bergarako Mississipira heltzen diren soinuak xurgatzen

BERGARAKO HIRUKOTE HONEK bigarren lana dauka kalean; honako hau euren kabuz argitaratua. Bateria gabeko taldea delako egin zen ezaguna, baina baditu bestelako berezitasunak: esaterako, oso talde gutxi dira abestiei halako tratamendua ematen dietenak eta estiloz hain irekiak direnak. Iraganeko flamenko kutsua alboratu badute ere, hor daude oraindik bluesa eta rocka; eta horiei jazz, surfa, folk zelta eta

bestelako koloreak gehitu dizkiete. Are gehiago, disko honetan kolaboratzaile asko izan dituzte: teklatuak, saxoa, biolina... Abiapuntua akustikoa bada ere, kantuek garapen handia dute eta igartzen da musikariek asko gozatzen dutela. Emaizta ere dotorea da, eta soinua lortzerakoan, oraingoan ere, Martxel Arkarazoren laguntza izan dute. Euskarazko eta ingelesezko hitzetan egunero-ko kontuak.

Unai Azkarate - Mahaster River

«Rock edo blues abesti on batek egilearen hizkuntzan idatzia egon behar duela uste dugu»

“Gaztetako ametsak egia bihurtu dira”?

Musikan murgildu ahala daukazu ametsak, eta pixkanaka betetzen goaz. Hasieran lagunentzat jotzea zen, aurrerago herritik irtetea, ondoren zure kantuekin disko bat grabatu eta ekoiztea... Horiek bete ditugu, baina beste horrenbeste sortuz doaz eta ilusio hori dugun bitartean jarraituko dugu musika egiten. “Sormena lantzea” da erokeriaren aurrean orekari eusteko modua?

Egunerokotasunari aurre egiteko modu bat da guretzat. Laster hamabost urte beteko dira gitarra jotzen hasi nintzenetik eta abesti berriak sortzea momentu batzuetan obsesioa da. Zer dela-eta ingelesarekiko zaletasun hori?

Entzuten dugun 60, 70 eta 80. hamarkadetako blues, rock eta soula ingelesez da, baina, hala ere, gehienetan euskaraz abesten dugu: rock



edo blues abesti on batek egilearen hizkuntzan idatzia egon behar duela uste dugu.

Rollo folk kantuagatik eta estilo irekieragatik, laster zuen diskoetan “Munduko musikak” etiketa jarri beharko duzue... Asko inprobisatzen duzue?

Nahasterrekan izena jartzearen arrazoietakoa bat gure kantuen esti-

UNAI ZIARSOLO

lo eta joera irekia da. Estilo nahasketa frikia egiten dugu: folk, soul edo funky, baina gehienetan nahiko rockero. Estudioan estruktura finkoa izaten dute, baina zuzenekoak izaten dira inprobisaziorako lekua, giroaren arabera.

Instrumentuen sonoritatea gero eta gehiago lantzen duzue. Badirudi instrumentuekin gero eta gehiago gozatzen duzuela. Hala da?

Sonoritatea baldintzatzen duten faktore ugari daude: gitarra

ezberdinak, amplifikadore ezberdinak, efektuak... Disko honek oinarri akustiko sendoa izateaz gain, horrelako sonoritate-aberastasun handia duela esan daiteke, kantu bakoitzak eskatzen zuen soinua topatzeko ahaleginak egin ditugu eta. Eta bai, geroz eta gehiago gozatzen dugu estudioak eskaintzen dituen baliabideez. ■